

Maitere Jauregi Zubillaga

*Tolosa,
Gipuzkoa
(1943)*

Aurkibidea

Biografia



Bedaioiko Gurbila Txiki baserrian jaioa eta Bedaiora bertara ezkondua. Maria Jauregi Zubillagaren ahizpa gaztea da, eta Mariak kontatutako guztiak bizi ez baldin baditu ere berak ere ondo gogoan ditu gaur egun desagertu diren hainbat ohitura.

Zintak

TOL-006

• **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artetxe, Miren
- **Data**: 2009-11-24
- **Iraupena**: 64 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Oruesagasti, Ainitze

Pasarteak

1. Urtebeteko dolu-aldia

- **Erref**: TOL-006/011
- **Iraupena**: 0:03:00. **Hasi**: 00:16:46. **Bukatu**: 00:19:46
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak

Laburpena:

Dolu-aldia urtebetekoa izaten zen. Dolu-arropak, jantzten ez baziren, jendea gaizki-esaka aritzen omen zen. Dolu-aldian, zer ohitura zeuden kontatzen du; elizan saski txiki bat jarri behar izaten zen zapi beltz batekin gainean eta kandelaz inguratuta. Norbait hil eta bederatzi egunera, meza eta bazkaria egin ohi zuten hildakoaren senideek.

2. Txanbrak, kankanak eta buruko zapia

- **Erref**: TOL-006/013
- **Iraupena**: 0:01:57. **Hasi**: 00:20:32. **Bukatu**: 00:22:29
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

<p>Gazte garaian, nola jantzten ziren azaltzen dute. Emakumezkoen txanbrak nolakoak ziren kontatzen du: lepo aldean itxiak, paparrean botoiak eta gerri aldean bolanteak. Gonak, berriz, beltzak edota "pinttoak" izan ohi ziren, eta kankana ere jarri ohi zitzaion "harrotzeko". Emakumeak 40 urte ingururekin hasten ziren buruan zapia jartzen.</p>

Transkripzioa

- Garai haietan ze erropa jantzen zenden? Nik ez det imajinatzen, ba, nola jantzen ziñaten.

- Maria: Oain ikusten da, e, garai haitan´e gonak eta... Ordun txanbra beltza esaten zitzaion, brusa beltza bezala, txanbra. Itxik, botoi beltxakin ta. Hemen bolante pittin bat izaten zun, ta itxie, bere kuello itxiekin. Txanbra. Ta gero gona beltza, o pintto... zea, txuri-beltza. Eta hoi´re asko ibiltzen zien. Asko. Ta brusa txurie. Brusa txurie eta gona, esan dizutena, pintto hoitakoa ta beltza. Eta dena estilo hortakoa, kolore hortako zea ibiltzen zan.

- Eta pañueloa ibiltzen zenden?

- Maria: Ez, gaztek ez. Ez. Behin edadeko... Emakumek ze? Berrogei urte ezkeoz hasten zien hemen pañolo ta zea hoikin. Pentsa zazu ze... Ta oain, [beira], zea. Eta, gaiñantzen, ez. Gaiñantzen, [beak] zeatu ta...

- Maitere: Lehenao beste bat izaten zan...

- Maria: Moño in ta, jenealen...

- Maitere: ... kankan esaten zitzaion. Dana harro-harro-harro ein, zeñek baiño zeñek harroago jarri.

- Maria: Gona, kankan esaten zitzaion.

- Kankan, azpiko gona?

- Maria: Azpiko gona zeatu.

- Maitere: Azpikoa ta gaiñekoa ´re bai, e?

- Maria: Bai, bik, karo, gaiñekoa zeatzeko.

- Maitere: Dena holaxe harro-harro-harro ein ta...

- Zenbat harroago, politto?

- Maitere: Zeñek baiño zeñek harroago jarri ibiltzen zan jendea. Kankan esaten zitzaion ordun harri. Gogoratzen al zea? Kankan.

- Maria: Kankan. Bai, bai. Kankan esaten zitzaion. Kankan esaten zitzaion harri.

- Maitere: Hoik guk ezautzen genduna.

- Maria: Bai, kankana, "el cancán". Gona kankan, buelokin ta. Baiño brusa txurie kantidadea ibiltzen zan. Ta beltza ´re bai. Gona beltzak eta brusa txurie kantidadea ibiltzen zan. Ta soiñeko ttanttodunek-eta ordun ´e jartzen zien.

- Maitere: Bai, gonak eta [...] ibiltzen zien, denetatiken.

- Maria: Bai, denetatik ibiltzen zien.

- Maitere: Ordun ez zan ikusten oain bezela galtzaik-eta, e! Ez, ez.

- Maria: Bai, zea! Ez.

3. Galtzak, inauterietan aurrenekoz

- **Erref:** TOL-006/014
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:22:29. **Bukatu:** 00:24:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Inauteriak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

<p>Neskek ez zuten galtzarik jantzten. Emakume atzerritar bati galtzak jantzita edukitzearren elizara sartzea galarazi zioteneko pasadizoa kontatzen du. Maiterek inauterietan jantzi zituen galtzak aurrenekoz; etxera itzultzerako, ordea, erantzi egin zituen.</p>

Transkripzioa

- Maria: Galtzakin badakit nik hola junda protestatu ziena herri baten.

- Nola izan zan hoi? Nik hori aitua nahi det.

- Maria: Etorri zien galtzakin, ez dakit zein herritan izango zien, aidanen, ta ez zien utziko elizen sartzen galtzakin-ta ikusi zittuen garain, ta. Eta haik kanpotik etorri emen zien, ta esan emen zuen hain herrin ta hain nazion hure korriente zala, hala ibiltzen zala. Ta han ez zala sekulan ibiltzen holako jantziik, eta ez zuela nahi han ikusteik zea hure, galtzak eta gauza hoik emakumek. Nik ´e ez nittun ikusi nahi izaten, ikusi nahi. Hori ´re ibili zan. Urtek die, desde luego.

- Eta zu gogoratzen zea Bedaion aurreneko emakumia ikusi zendun garaia galtzak jantzita? Goguan dezu zuk lehenengo emakumia...?

- Maria: Ez dakit zenbat urte izango dien hoi, Bedaion...

- Maitere: Aurrenekoa?

- Aurrenekoa galtzak jantzita.
 - Maria: Bai, ba, Bedaion aurrena galtzak jantzita ikusitakoa akordatzan al naizen.
 - Maitere: Ez gea akordatzan, baiña gu... nik...
 - Maria: Ni neoni garai haitan...
 - Maitere: ... karnabaletan jantzi nittun.
 - Bai?
 - Maitere: Aurreneko karnabaletan jantzi nittun. Han ez zan ikusten. Hemengo jendeak ez zun ikusten. Baiño geo erantzita etorri, e, gora. [Ahal izatez]. Aber. Zenbat denbora da, ba, oandiken?
 - Maria: Ez dao, ba, urte asko galtzakin hemen hasitako zeak, e?
 - Maitere: Berrogeita hamar bat urte bai. Berrogeita hamar [bueltan].
 - Maria: Hortxe, berrogeita hamar-hamabost... hamabost bat urte, hortxe. Hortxe ibiliko da.
 - Maitere: [Ez zan] ordun ez zan ikusten galtzaik hemen.

4. Apretak eta zapatak

- **Erref:** TOL-006/015
- **Iraupena:** 0:02:08. **Hasi:** 00:24:04. **Bukatu:** 00:26:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

<p>Mendi-bideetan ibiltzeko, apretak eta abarkak janzten zituzten. Festara joateko, berriz, sandaliak edota zapatak janzten zituzten. Tolosako "apeadero" pareko denda batean saltzen zituzten Azpeitian egindako apretak.</p>

Transkripzioa

- Oiñetan ze ibiltzen zenduen?
 - Maria: Oiñetan apreketa asko, ez zan zeaik eta. Zapatillek eta apreketak ordun ibiltzen zien gehiena; zapatak oso gutxi.
 - Maitere: Gero, nora jutun giñen? Beste gauz bat. Festaa jun behar bagendun, jutun giñen Azkaratea.
 - Maria: Larraitze.
 - Maitere: Badakizu nun daon Azkarate? Ba al dakizu nun daon?
 - Bai.
 - Maria: Bedaiotik seittun dao ta.
 - Maitere: Gure etxetiken belaxe dao. Mikeletek´e zelatan aittu zien, ba? Ba, hortxe dao. Gure etxea hor gaikalde hortantxe dao etxea. Ta Azkarate muga terrenok-eta dare denak. Ta hara jutun giñen festaa. Ta nola jungo giñen, ba, zapatillekin? Beti lokatza besteik ez zan izaten. Ta Larraitzea jun behar gendunen´e abarka-galtzerdik.
 - Maria: Bai, bai, hala zan. Egualdi earra baldin bazan, zapatillek ta apraketak eamaten zien asko. Egualdi earra zan garain hoik eamaten zien, ta txarra baldin bazan...
 - Maitere: Ordun garoa ta [zabar] asko izaten zan bide hoitan. Bide txarrak izaten zien ordun´e. Beno, oain baiño hobek, noski, baiño...
 - Maria: Bai, sandaliak o zeak. Sandaliak o zeak, ebie itten zunen sandaliak´e bai.
 - Maitere: Sandaliak nola emango giñun, ba, Maritxu, eurie itten zunen?
 - Maria: Ebie itten zunen´e sandalia beltzak-eta izaten zien, eta haik´e

ibiltzen zien, e?

- Maitere: Ez hemen ibiltzeko. Ez hemen ibiltzeko, ordea, Maria!

- Maria: Festaa juteko, esan nahi nuke.

- Maitere: Zapata baju batzuk eta hola, ez sandaliak. Sandaliak gero ez al zien goitik behera juteko, festaa-ta juten giñenen?

- Maria: Hoi ba! Sandaliak, hori esan nahi nuke, festaa juten giñenen.

Sandaliak eta apreketak eta zapatillek.

- Apreketa hoiek etxen iten al zenituen?

- Maria: Ez. Hoik garai hartan ta oain´e hoik kantidadea Azpeitin itten zien. Ta Tolosan gero zeatzen zien hor, saltzen. Tolosan bertan´e eingo zien, noski; ez naiz hoinbeste akordatzten. Oaintxe´re urdun zeatzen zienak, Azpeititik ekarrita zeatzen zienak, Tolosan, apeaderon paren, beste kallejoia zeatu pare-paren, ixkiñen, ta oaiñik denda harek segittu eitten du, apreketak eta gauzak. Tolosan. Bai. Hantxe segitzen du.

- Maitere: Abarkak lotu, [...]honaiño goraiño lotu, galtzetin zurik jantzi ta...

- Maria: Bai.

5. Doktrinako kontuak

- **Erref:** TOL-006/019
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:28:21. **Bukatu:** 00:29:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Doktrina

Laburpena:

Komunio txikia eta handia egin zituzten. Doktrinan zer liburu erabiltzen zituzten aipatzen dute. Lezioa ondo esaten ez zuenari apaizak atximurka egin edo kaskarrekoa jotzen zion.

6. Neguan, lasta-balak piztuta mezara

- **Erref:** TOL-006/021
- **Iraupena:** 0:01:21. **Hasi:** 00:30:34. **Bukatu:** 00:31:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak

Laburpena:

Bideak oso onak izan ez arren, elurte garaian ere mezara joan ohi ziren igandetean. Lasta-balak piztuta joan ohi ziren goizean goiz, ilunpetan. Behin Bedaioara iristen zirenean, oinetakoak aldatzen zituzten bizilagun baten etxean.

7. Igandetako meza

- **Erref:** TOL-006/024
- **Iraupena:** 0:00:48. **Hasi:** 00:39:17. **Bukatu:** 00:40:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak

Laburpena:

Bedaion, bi meza izan ohi ziren igandetan. Baraurik joan behar izaten zen mezara. Meza ondorenerako, tabernako andreak salda prest izaten zuen.

8. Kinkea eta farola, argia egiteko

- **Erref:** TOL-006/026
- **Iraupena:** 0:01:04. **Hasi:** 00:41:05. **Bukatu:** 00:42:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

Laburpena:

Etxean ez zuten argindarrik. Karburoa, petrolioa eta kandelak erabiltzen zituzten argia egiteko. Etxean, kinkea; biderako, farola erabiltzen zituzten. Bedaioke eliza ba omen da farola.

9. Burukotea eta perra, ura garraiatzeko

- **Erref:** TOL-006/027
- **Iraupena:** 0:01:42. **Hasi:** 00:42:09. **Bukatu:** 00:43:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

Laburpena:

Iturririk hartu behar izaten zuten ura. Ganaduak iturrira eramaten zituzten ura edateko. Ura garraiatzeko, burukotea eta, haren gainean, urez beteriko "perra" jarrita ibili ohi zen jendea. Auzoko emakume batek ontzia bete ur buru gainean nola eramaten zuen gogoratzen dute.

10. Jolasak eta erromeriak

- **Erref:** TOL-006/028
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:43:51. **Bukatu:** 00:45:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Umetako jolasak: "airesaltoan", pilotan... ibiltzen ziren. Inguruko auzoetako erromeriak aipatzen ditu: Askarate, Ugarte, Larraitx.

11. Gramofono jarri eta dantzan

- **Erref:** TOL-006/029
- **Iraupena:** 0:00:43. **Hasi:** 00:45:01. **Bukatu:** 00:45:44

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

Bezperen ondoren, dantza egiteko apaizak gramofonoa jarri zienekoa kontatzen du.

12. Kontrabando kontuak

- **Erref:** TOL-006/035
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:52:06. **Bukatu:** 00:53:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Errota
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Gerra denboran, beldurra zegoen. Nafarroa eta Gipuzkoa arteko mugan, kontrabando handia izaten zen. Baserrian, simaurraren azpian, janariz betetako zakuak gordetzen zituzten. Bedaiotik Donostiarako bidea egiten omen zuten kontrabandoan. Auzoko errota bat itxi egin zuten.

13. Etxeko ogia

- **Erref:** TOL-006/038
- **Iraupena:** 0:02:11. **Hasi:** 00:54:33. **Bukatu:** 00:56:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Garia

Laburpena:

<p>Etxean ogia nola egiten zuen kontatzen dute. Orantza gordetzen zuten, hurrengo astean berriz ere ogia egiteko. Ogia egiteko kutxari, "erromari" (ore-mahai) esaten zitzaion. Orantza irinetan eta ur epeletan urtu ondoren, masa egiten zen. Gero, maindire zuri batekin estalita uzten zuten masa. Labea berotu eta masa arrotzen zenean, opilak egin eta labean sartzen ziren.</p>

14. Ogia, ore-mahaian egina

- **Erref:** TOL-006/040
- **Iraupena:** 0:01:31. **Hasi:** 00:58:19. **Bukatu:** 00:59:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Garia

Laburpena:

Ogia egiteko kutxa, "erromaria" (ore-mahaia), nolakoa izan zen kontatzen dute. Oholekin egindakoak izaten ziren, eta tapa izaten zuten. Masa hobia egiteko, hankak ondo garbitu eta zapaldu egiten zuten. Gero, masa maindire zuri batean txukun-txukun biltzen zen. Taloa egiteko ur beroa behar izaten dela diote.

15. Labea: ogia egiteko, artoa lehortzeko eta ezkutatzeko

- **Erref:** TOL-006/041
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:59:50. **Bukatu:** 01:01:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserríko lanak » Garia

Laburpena:

Ogia egiteko labea nola prestatzen zuten kontatzen dute. Behin ogia egindakoan, arto hezea sartzen zuten labean ihartu bitartean. "Gordeketan" aritzen zirenean, labean ere ezkututzen omen ziren.

16. Gazta nola egiten den

- **Erref:** TOL-006/043
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 01:01:33. **Bukatu:** 01:03:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserríko lanak » Artzaintza

Laburpena:

Gazta nola egiten den azaltzen du. Ardiak jetzi ondoren, esnea iragazkian pasatu behar da. Beste ontzi batean, "arkumearen gatzzeria" beratu behar da uretan. Gero, ur hori iragazkian pasata ondo nahastu behar izaten da; hortik sortzen den masa egurrezko ontzietan jartzen da. Denbora bat utzi behar izaten da gazta lehortzeko. Bukatzeko, suaren kearekin kolorea ematen zaio.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2025-06-21

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com